OT-001-2016

**Gaia:** Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

**Asunto:** Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun Zenbakia: 40
Nork aurkeztu du: Barakaldo Naturala Elkartea
Aurkezpen data: 2022/02/08

## IRADOKIZUNAREN LABURPENA

1. Errekatxoko ibarra Meatzaldeko Biotopoan sartze aldera izapideak hasteko eskatzen da, ingurumen-interes handia baitu.

2. Mugikortasuna eta garraio-azpiegiturak

2.1. Bilboko portuan jomuga eta jatorria duten salgaiak garraiatzeko tren-azpiegitura berria sortzearen aukera ezesteko eskatzen da, honako argudio hauetan funtsatuta:

- Lehendik dauden aldiriko trenbideak modernizatu eta lurperatzeko aukera kostu ekonomiko txikiagoarekin bidaiarien eta salgaien trafiko-errekerimenduei erantzuteko gai da. Gainera, dauden hirigintza-oztopoak kentzen ditu, eta Ezkerraldean hiria berriz diseinatzeko azalera zabalak eskaini ere bai.

- HTMSk eragin larria lortuko luke Gorostiza eta Zubileta-Kastrexana auzoetan ingurumenaren, ikus-eremuaren, gizartearen eta kutsadura akustikoaren arloetan.

- HTMSk ez luke Ezkerraldeko udalerrietan zehar salgaien garraioa kenduko, Sestaon Arcelor Mittal enpresa baitago.

Sugerencia Nº: 40
Presentada por: Barakaldo Naturala Elkartea
Fecha de presentación: 08/02/2022

## RESUMEN DE LA SUGERENCIA

1.Se solicita que se inicie la tramitación para incluir el valle de El Regato en el Biotopo de Meatzaldea, dado su elevado interés medioambiental.

2. Movilidad e infraestructuras del transporte.

2.1. Se solicita que se rechace la opción de crear una nueva infraestructura ferroviaria para el transporte de mercancías con origen o destino en el Puerto de Bilbao, basándose en las siguientes argumentaciones:

- La alternativa de modernización y soterramiento de las líneas de cercanías existentes es capaz de atender a los requerimientos de tráfico de pasajeros y mercancías que se prevén con un menor coste económico, elimina las barreras urbanísticas existentes y propicia amplias superficies para el rediseño urbano en Ezkerraldea.

- La VSFM generaría un grave impacto medioambiental, visual, social y de contaminación acústica en los barrios de Gorostiza y Zubileta-Kastrexana.

- La VSFM no eliminaría el transporte de mercancías por los municipios de la Margen Izquierda dada la ubicación en Sestao de la empresa Arcelor Mittal.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GEL1-52A7-BRGW-HXMQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2.2. Ez da Errekatxo ibarretik udalaz gaindiko edozein bide- eta/edo tren-azpiegitura pasatzea nahi, uholde-eremua baita. Gainera, Arrain Hiruarantza Kudeatzeko Foru Planak babestuta dago eta zorupeko akuiferoek afektazio konponezina izango lukete.

3. Barakaldon hazkuntza mugatzeko eta bizitegikuantifikazioa murrizteko zenbait argudio ematen dira.

Argudioetan, LAGetatik eta Aurrerapen Memorietatik nahiz LPP hasieran onesteko agiritik hartutako irizpide orokorrak daude bizitegi-beharrei eta biztanleak gutxitzeari, etxebizitza hutsei, harrotze-faktoreari eta bizitegiko hirigintza-ereduari dagokienez. Gero, Barakaldora ekartzen saiatzen da.

4. Lutxana-Burtzeña eremua (Burtzeña enpresa-parkea) deskalifikatzea eta igarobide ekologikoetarako eta ibai-parkeetarako LPPak xedatutako irizpideen arabera antolatzea planteatzen da.

5. "Kadagua Eremua" plangintzak bateratzeko eremua jarduera ekonomikoak kokatzeko desegokitzat jotzen da, beraz, ibai-parkeen eta igarobide ekologikoen sarean eraginkortasunez txertatzeko birkalifikatzea eta berriz natural bihurtzea proposatzen da.

## IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

1. Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 52. artikuluak xedatutakoaren arabera, naturagune babestuak, besteak beste biotopo babestuak, Eusko Jaurlaritzaren dekretuaren bidez deklaratzen dira, beraz, berak erantzun beharko dio eskaerari. Ez da, ordea, LPParen mendekoa.

2. Mugikortasuna eta garraio-azpiegiturak.

2.1. Hegoaldeko Trenbide Saihesbidea Interes Orokorreko Trenbide Sarean (IOTS) dago, eta plangintza Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren eskumenekoa da. Horregatik, administrazio horri zuzendu beharko zaio eskaera, LPPak IOTS aldatzeko eskumenik ez baitu. Hala eta guztiz ere, LPPak bere lu-

2.2. Se muestra el rechazo al paso por valle de El Regato de cualquier infraestructura viaria y/o ferroviaria de índole supramunicipal, dado su carácter de ámbito inundable, el estar protegido por el Plan Foral de Gestión del Pez Espinoso y la irreparable afección a acuíferos subterráneos.

3. Se exponen varios argumentos para solicitar que se limite el crecimiento y se reduzca la cuantificación residencial de Barakaldo.

En la argumentación se recogen criterios de tipo general tomados de las DOT, así como de las Memorias del Avance y del documento de aprobación inicial del PTP, en relación con las necesidades residenciales y la disminución de la población, el número de viviendas deshabitadas, el factor de esponjamiento y el modelo urbanístico residencial, que luego tratan de particularizarse al caso de Barakaldo.

4. Se plantea la descalificación del área Lutxana-Burtzeña (Parque Empresarial Burtzeña) y su ordenación según los criterios establecidos en el PTP para los corredores ecológicos y los parques fluviales.

5. Se considera que el área de compatibilización de planeamientos "Zona Kadagua" es inadecuada para ubicar actividades económicas, por lo que se propone recalificar y renaturalizar para su integración efectiva dentro de la red de parques fluviales y corredores ecológicos.

## CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

1. De acuerdo con el artículo 52 de la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de conservación del patrimonio natural de Euskadi, los espacios naturales protegidos, entre ellos los biotopos protegidos, se declararán por decreto del Gobierno Vasco, que será quien deba pronunciarse sobre esta solicitud, que no depende del PTP.

2. Movilidad e infraestructuras del transporte.

2.1. La Variante Sur Ferroviaria forma parte de la Red Ferroviaria de Interés General (RFIG), cuya planificación es competencia del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana. Por ello deberá ser a esta administración a la que se dirija la solicitud, ya que el PTP no es competente para realizar modificaciones en

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GEL1-52A7-BRGW-HXMQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

rralde-ereduan HTBS sartzen du, Portu Autonomoak sortutako salgaien garraiorako oinarriak ezartzen diren neurrian, ahalik eta gehien, errepideko garraiotik tren-garraiora bideratzeko, 78. artikuluaren 2.d) apartatuak xedatutakoari jarraikiz.

la RFIG. No obstante, el PTP incorpora la VSFB en su modelo territorial en la medida en que se sientan las bases para que el transporte de mercancías generado por el Puerto Autónomo se derive, en la mayor medida posible, desde el transporte por carretera hacia el ferroviario, tal y como se establece en el apartado 2.d) del art.78.

Egungo trazadurak lurperatzearen aukerak bere gain hartu beharko luke salgaien tren-trafikoaren hazkuntza garrantzitsua, LPParen paradigma-aldaketak bultzatuta, bidaiarien trafikoarekin bizikidetzen jarduteaz gain. Azkenekoan, desiragarria litzateke C2 linean maiztasunak gehitzea. Nolanahi ere, aukera hau aztertu, baloratu eta sektoreko administrazio eskudunak bere gain hartu beharko luke.

La alternativa del soterramiento de los trazados actuales debería poder asumir el importantísimo aumento del tráfico ferroviario de mercancías derivado del ya reseñado cambio de paradigma establecido desde el PTP, además de soportar la convivencia con un tráfico de viajeros en el que sería deseable un aumento de frecuencias en la línea C2. En cualquier caso, esta alternativa debería ser analizada, valorada y asumida por la administración sectorial competente.

Alegazioaren egileak azaldutakoaren ildotik, HTBSk Itsasadarraren ertzetik ez du salgaien garraioa erabat kentzen, Sestaoko industriaertzeko lurzoruak zerbitzatu behar baititu. Are gehiago, LPPak ohiko trenbide-zabalerari zabalera metrikoa eranstea proposatzen du. Horrekin ez da hirigintza-oztopo berririk sortuko, trazadura dagoenarekiko paraleloa bailitzateke. Dena den, hiriguneen ondoko trazaduretatik salgaien trafikoa kentzean, HTBSk egun trenbideek okupatutako azalerak nabarmenki murriztea sustatuko du (LPParen proposamena), etorkizunean trenbideek sortzen duten hirigintza-oztopoa salbatzeko jarduketak gauzatu ahal izateaz gain.

Tal y como señala el alegante, la VSFB no elimina totalmente el transporte de mercancías por el margen de la Ría, al tener que servir a los suelos de la ribera industrial de Sestao; el PTP, incluso, propone añadir al ancho ferroviario convencional existente el ancho métrico, si bien no se genera una nueva barrera urbanística ya que el trazado discurriría en paralelo al ya existente. Lo que sí propicia la VSFB, con la eliminación del tráfico de mercancías por los trazados existentes en contigüidad a núcleos urbanos, es la posibilidad de reducir sensiblemente las superficies ocupadas actualmente por playas de vías, propuesta ésta incluida en el PTP, y facilitar de esta forma futuras actuaciones que permitan salvar la barrera urbanística que suponen los tendidos ferroviarios.

2.2. Errekatxo ibarreko eraginak jarduketaren ingurumen-eraginari buruzko ebaluazioan kontuan hartu beharko dira, eta konponbidea baldintzatuko dute. Dena den, ez da uste LPPari dagokion zehaztapen-mailan gai horrek "per se" HTBSren proposamena deuseztatzea justifikatzen duenik, batez ere, ibarraren gurutzaketa oso eremu antropizatuan planteatzen dela aintzat hartuta. Nolanahi ere, LPPak zenbait baldintzatzaile ezartzen ditu Errekatxo ibarrean eta Castaños ibaian plantea daitezkeen balizko jarduketei buruz, besteak beste:

2.2. Los impactos en el valle de El Regato deberán ser tenidos en cuenta en la correspondiente evaluación de impacto ambiental de la actuación, condicionando la solución a dar a la misma. No se considera, sin embargo, que en el nivel de concreción que corresponde al PTP esta cuestión justifique la eliminación "per se" de la propuesta de VSFB, sobre todo teniendo en cuenta que el cruce del valle se plantea en una zona considerablemente antropizada. En cualquier caso, en el PTP se establecen condicionantes de distinto tipo sobre las posibles actuaciones que se pudieran plantear sobre el valle de El Regato y el río Castaños, estos son:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GEL1-52A7-BRGW-HXMQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Ingurune fisikoari kategoria ematean, gainazaleko urak babesteko eremu eta "babes bereziko eremu" gisa sartzea.

- En la categorización del medio físico, con su inclusión como ámbitos de protección de aguas superficiales y espacios de "Especial Protección".

- Azpiegitura Berdearen "babes-definizioan", ingurune hau kultura-zerbitzu ekosistemiko aipagarriak (ibai-parkea) dituen elementu modura sartzea eta Ganekogorta-Meaztegi-Barbadún igarobide ekologikoan ibarraren goiko aldea eta zona zehatzak "interes komunitarioko beste habitat batzuen" barruan sartzea.

- En la definición de la Infraestructura Verde, la inclusión de este entorno como elemento con servicios ecosistémicos culturales de relevancia (parque fluvial), de la parte alta del valle en el corredor ecológico Ganekogorta-Meaztegi-Barbadún y de determinadas zonas como "otros hábitats de interés comunitario".

- Natura arriskuei eta klima-aldaketari dagokionez, uholde-arriskua duten guneak eta basoko sute-arriskua dutenak.

- En relación con los riesgos naturales y el cambio climático, las áreas inundables y las de riesgo de incendios forestales.

Iradokizunak azaltzen duenaren ildotik, arrain hiruarantzaren babesa ziurtatuta dago Arrain Hiruarantza Kudeatzeko Foru Planari esker. Horren arabera, bere interes bereziko eremuetan edozein jarduketak espezie honen habitatari dagozkion ezaugarriak aldatzen baditu, aurretiaz Nekazaritza Sailak baimendu beharko du.

La protección del pez espinoso queda asegurada, como señala la sugerencia, por el Plan Foral de Gestión del Pez Espinoso, que determina que cualquier actuación en sus áreas de interés especial que implique la modificación de las características del hábitat de esta especie, necesitará la autorización previa del Departamento de Agricultura.

3. LPParen bizitegi-kuantifikazioak LAGen IV. eranskinean eta 13. artikuluan xedatutako kalkulu-metodoari erreparatu behar dio. Hala, LPPa hasieran onesteko dokumentuak kuantifikazio hori Memoriaren 6.4.2 apartatuan Aurrerapenean baino zehatzago definitu du, 2018-2026 denboraldirako LAGen IV. eranskineko tauletatik abiatuta.

3. La cuantificación residencial del PTP debe atenerse al método de cálculo establecido en el artículo 13 y en el Anexo IV de las DOT. Así, el documento de aprobación inicial del PTP ha concretado esta cuantificación en el apartado 6.4.2 de la Memoria, de manera más detallada que en el Avance, partiendo de las tablas del Anexo IV de las DOT para el periodo 2018-2026.

Barakaldoren kasuan, LPPak esleitutako gehieneko bizitegi-gaitasuna (4.605 etxebizitza) udalek gutxienez bizitegi-parkearen % 10a planteatzeko duten aukeran oinarritu da, kalkuluaren balio zehatzak gorabehera, biztanleak galtzen dituen udalerria baita (% 2 1996 eta 2016 bitartean). % 10eko bizitegi-gaitasuna LAGek 13. artikuluan (2.e, 2.a apartatua) eta IV. eranskinean (2.c.2) bermatzen dute.

En el caso de Barakaldo, la capacidad residencial máxima asignada en el PTP (4.605 viviendas) viene determinada por la posibilidad que tiene todo ayuntamiento de plantear al menos un 10% de su parque residencial, al margen de los valores concretos del cálculo, ya que es un municipio que pierde población (un 2% entre 1996 y 2016). Esta capacidad residencial del 10% viene garantizada por las DOT en el artículo 13 (apartado 2, e,2, a), así como en el Anexo IV (apartado 2, c,2).

Hala eta guztiz ere, argitu behar da kuantifikazioak gehieneko bizitegi-gaitasunak zehazten dituela, baina udal-plangintzek beren gain ez dituztela hartu behar.

Sin embargo, hay que aclarar que esta cuantificación establece unas capacidades residenciales máximas que no tienen por qué ser asumidas por los planeamientos municipales

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GEL1-52A7-BRGW-HXMQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Ildo horri eutsiz, plangintza ikuskatzean, udalerri bakoitzak gehieneko gaitasuna berriz kalkulatu beharko du, eta, horretarako, biztanleen eta etxebizitzaren datuak eguneratu beharko ditu. Etxebizitza hutsaren ehunekoak finkatuko dira, eta harrotze-faktorea hautatuko da. Gehieneko muga lortzen denean, ez da gaindituko, eta HAPOa ikuskatzen duen justifikazio-memorian etxebizitza-beharrak zehazteko orduan, udalerriek arrazoitu ondoren aurreikuspenak murriztu ahalko dituzte, gutxiago, gutxi edo ezer ez hazteko, ez baitago gutxieneko mugarik.

4. Lurzoruen sailkapena eta kalifikazioa udalaren eskumena da.

Horrela, Hiriko Hazkunde Perimetroari (HHP) dagokionez, LAGetako memoriaren 6.3.I kapituluan aurrez ikusitakoaren babesean, LPPak udalei gomendatzen die beren plangintzak ikuskatzen dituztenean, garatu gabeko lurzoru urbanizagarri batzuk desklasifikatzeko aukera, oso-osorik edo zati batean, kontuan hartzea eta hirigintza-eraldaketaren beharra berriz pentsatzea naturaguneari eta landaguneari ez eragiteko eta lurzoruaren kontsumoa mugatzeko. Iradokizun bat baino ez da, eta plangintzak ikuskatzean kontuan hartu edo baztertzeko aukera izango da.

Udal-esparru horretan baloratu beharko da jada antropizatutako eremua dela, industria-erabilerak jardunean dituena, zentralitate handieneko lurzoruan, funtsezkoa baita Itsasadarraren inguan LPPren lurralde-ereduan definitutako metrópoli-estrategia lortzeko.

5. “Kadagua Eremua” plangintzak bateratzeko gunea jarduera ekonomikoak kokatzeko egokitzat edo desegokitzat jotzea, bere antolamendu xehatua definitzea edo berriz kalifikatzea eta naturaldu nahi izatea, eskala aintzat hartuta, hirigintza-plangintzaren analisiari dagozkion alderdiak dira.

Así, en el momento de revisar su planeamiento, cada municipio habrá de recalcular la capacidad máxima con los datos de población y vivienda actualizados, fijando los porcentajes de vivienda vacía y eligiendo el factor de esponjamiento. Una vez obtenido este límite máximo que no se deberá superar, a la hora de establecer la cifra de sus necesidades de vivienda en la Memoria justificativa de la Revisión del PGOU, los municipios podrán rebajar sus previsiones de manera motivada y crecer menos, poco o nada, ya que no hay límite mínimo.

4. La clasificación y calificación de suelo es competencia municipal.

En este sentido, amparado en lo previsto en el capítulo 6.3.I de la Memoria de las DOT en relación con el Perímetro de Crecimiento Urbano (PCU), el PTP recomienda a los ayuntamientos que en la revisión de sus planeamientos contemplen la posibilidad de desclasificar, en todo o en parte, algunos suelos urbanizables no desarrollados y que reconsideren la necesidad de su transformación urbanística para evitar la afección al medio natural y rural y limitar el consumo de suelo. Se trata de una sugerencia que podrá ser o no atendida por la revisión de los planeamientos respectivos.

Es en ese marco municipal donde deberá valorarse que se trata de un ámbito ya antropizado con usos industriales en activo, en un suelo de máxima centralidad, clave en el modelo territorial del PTP para lograr la estrategia metropolitana definida en el entorno de la Ría.

5. La consideración del área de compatibilización de planeamientos de la “Zona Kadagua” como adecuada o no para la ubicación de actividades económicas, su ordenación pormenorizada o su posible recalificación y renaturalización son, por su escala, aspectos más propios del análisis del planeamiento urbanístico.

**LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA**
**LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL**

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GEL1-52A7-BRGW-HXMQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus